

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **73/2022 Mozioa, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez Osasun Sailari hainbat jarduketa burutzea eskatzen baitzaio osasun sistema publikoa hobetzea helburu**

Arabako Batzar Nagusiek, 2022ko uztailaren 15ean egindako osoko bilkuran, mozio hau onetsi zuten:

73/2022 Mozioa, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez Osasun Sailari hainbat jarduketa burutzea eskatzen baitzaio osasun sistema publikoa hobetzea helburu.

1. Arabako Batzar Nagusiek Osasun Sailari eskatzen diote osasun-sistema publikoak herri honetan eskaintzen duen arreta urte osoan berma dezala, uda-garaian barne.

2. Arabako Batzar Nagusiek Osasun Sailari eskatzen diote formakuntza-eskaintza egiaztatu guztia urtero eskaini dezala, Osakidetzako profesionalen artean belaunaldi-arteko ordezkioak izan daitezkeen datozen urteetan. Era berean, Osasun Sailari eskatzen dio, formakuntza amaitzen denean, lan-kontratu bat eskaini diezaiela Euskadiko osasun-arretaren sistema indartzen jarraitzeko beharrezkoak diren pertsona guztiei, kalitatezko enpleguaren aldeko apustuaren parametroen barruan.

3. Arabako Batzar Nagusiek Osasun Sailari eskatzen diote Osakidetzako plantilla berritzeko, egonkortzeko eta handitzeko politikarekin jarrai dezala, XII. Legegintzaldiko programan jasotako konpromisoak bete daitezkeen, eta, alde horretatik, lehen mailako arretari dagokionez, lanpostu hutsen eskaintza mantendu eta zabaldu dezala, lehen mailako arreta indartzeko. Era berean, lehen mailako arretaren Estrategian aurreikusitako profil profesional berriak (fisioterapia, gizarte-farmazia) ezartzen jarraituko du, osasunaren zaintza osoa hobetzearen alde egiteko.

4. Arabako Batzar Nagusiek Osasun Sailari eskatzen diote dagoeneko onartu eta deitu diren enplegu publikoaren deialdi-prozesuak burutu ditzala, plantillen jarraitutasuna eta egonkortasuna berma dadin, eta, aldi berean, jarrai dezala datozen EPEak eta horien deialdiak urtero onartzeko lan egiten, behin-behinekotasuna murrizteko eta enplegu egonkor eta kalitatekoa ahalbidetzeko konpromisoak bete daitezkeen.

5. Arabako Batzar Nagusiek Osasun Sailari eskatzen diote Osakidetzaren hainbat Erakunde Sanitario Integratuaren lehen mailako arreta osatzen duten profesionalen artean egiten ari diren hausnarketa amaitu ondoren, ondorio horiek Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordearekin partekatu ditzala, talde parlamentarioiek lehen mailako arretaren egoera erreala zuzenean ezagutzeko aukera izan dezaten, dagozkion egiaztapenak egin ditzaten eta egokiak deritzen ekarpenak egin ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 15a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**